MENDAROKO

UDALA

BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA, MENDAROKO SANTA ANA BASELIZAREN TEILATUKO EGITURA ZAHARBERRITZEKO PROIEKTUARI DAGOZKION OBRAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO.

1.- HELBURUA

Kontratuaren helburua da MENDAROKO SANTA ANA BASELIZAREN TEILATUKO EGITURA ZAHARBERRITZEKO PROIEKTUAn jasotako lanak egitea.

Lan horiek ZETABI, ARKITEKTURA BULEGOA, S.L.P. enpresak idatzitako proiektu teknikoari hertsiki lotuta egingo dira. Proiektu horrek memoria, aurrekontua, baldintzen agiria, segurtasun eta osasunari buruzko azterlana, hondakinen kudeaketari buruzko azterlana, kalitate-kontrolerako plana eta planoak barne hartzen ditu.

Kontratistari dagozkio proiektua gauzatzeko behar diren lan guztiak egitea.

Hori horrela, kontratuaren CPV-ak ondorengoak izango dira:

- 45212350-4 – Interes historiko edo arkitektonikoko eraikinak
- 45212360-7 – Eraikin erlijiosoak eraikitzeko lanak

2.- KONTRATUAREN ZEBATEKOA

MENDAROKO SANTA ANA BASELIZAREN TEILATUKO EGITURA ZAHARBERRITZEKO PROIEKTUAn aurreikusitako obren guztizko aurrekontua EHUN ETA HOGEI MILA SEIEHUN ETA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMOKOA da, BEZik gabe (120.619,27 €), hau da, EHUN ETA BERROGEITA BOST MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA HOGEITA HAMABI ZENTIMOKOA, BEZa barne (145.949,32 €).

Administrazio Klausulen Pleguko proposamen-ereduaren arabera egiten diren beheranzko eskaintzak bakarrik izango dira baliozkoak.

Enpresa lizitatzaileak kontuan izan beharko du, segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dagoen legediaren arabera, eta eraikuntza-obretan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretuan oinarrituta, segurtasunari eta osasunari dagokien aurrekontuan, azterlanaren aurrekontuan zehaztu ez diren alderdietan, aurrekontua osatzen duten unitateen unitateko prezioetan sartuta dagoela.

Kontratua gauzatzen hasi aurretik, kontratista esleipendunak Segurtasun eta Osasun Plana egingo du, proiektuaren Segurtasun eta Osasun Azterlanean oinarrituta. Plan horrek Azterlanean jasotako aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatuko ditu, eta gauzatu beharreko instalazio-lanetara egokituko du, betiere bere egikaritze-sistemaren arabera.

Era berean, hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari buruz indarrean dagoen legeria kontuan hartuta (105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena), kontratua gauzatzen hasi aurretik, enpresa kontratista esleipendunak administrazioari plan bat aurkeztu beharko dio, egikaritu beharreko lanetan sortuko diren eraikuntza- eta eraispen-hondakinen inguruan dagozkion betebeharrak nola gauzatuko dituen adierazteko. Plana, zuzendaritza fakultatiboak onartu eta administrazioak ontzat eman ondoren, kontratu-dokumentuetan sartuko da.

3.- LANEN EXEKUZIO EPEA

Kontratazio honen xede diren obrak gauzatzeko guztizko epea HIRU (3) HILABETEKOA izango da, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu eta hurrengo egunetik hasita.

Aurretik ezarritakoari kalterik egin gabe, epe hori enpresa lizitatzaileak zehaztu beharko du eskaintzan.

Nolanahi ere, zuinketa-akta sinatu aurretik, enpresa esleipendunak proposatutako programa udal zerbitzu teknikoekin, zuzendaritza teknikoarekin eta eraikuntza-enpresarekin adostu beharko da.

Dena den, kontuan izan behar da, alde batetik, Santa Ana baselizaren jabea Gotzaindegia dela; eta bestetik, ustezko interes arkeologikoko gunea izanik, Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura, lankidetza, gazteria eta kirol departamentuaren baimena behar dela lanak egiteko. Beraz, bi erakundeen baimenak beharrezkoak dira lanak hasteko. Prozedurak abian dira eta arduradunek adierazi dute ez dela oztoporik izango horiek lortzeko. Edozein kasutan, lanak ezingo dira hasi baimen horiek ez dauden bitartean.

Obra antolatzeko eta gauzatzeko moduaren ondorioz, enpresa kontratistak obraren programazioa adostu beharko du udal zerbitzu teknikoekin eta obra-zuzendaritzarekin. Inguruabar horrek, obrak hasteko data aldatzeak bezala, ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko, lizitatzaileek alderdi horiek kontuan hartu behar baitituzte eskaintza egiterakoan.

Ondorioz, lanen programan aldaketak egin daitezke obrak egin bitartean, baldin eta kontratuaren klausulak urratzen ez badira. Aurrez ezarritakoa gorabehera, enpresa kontratistak lan-programa eguneratu beharko du kontratu-baldintzak aldatzen diren bakoitzean, eta programa finkatu eta eguneratuko du Administrazioak emandako jarraibideen arabera.

Ildo horretan, dagozkion bilerak egingo dira udal-zerbitzu teknikoekin, obra-zuzendaritzarekin eta enpresa kontratistarekin, eta bertan, elkarrekin, zehaztuko da obren programazioa.

Obrak dirauen bitartean kontratua etetea erabakitzen bada, dagokion akta egingo da, eta obrak eteteko eta berriz hasteko akordioak hartuko dira.

Enpresa lizitatzaileak proposatutako epe zehatzaren exekuzioa atzeratzen bada, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 193. eta 195. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

4.- KALITATE KONTROLA. PROBAK ETA ENTSEGUAK

ZETABI, ARKITEKTURA BULEGOA, S.L.P. enpresak egindako egikaritze-proiektuan jasota dagoen Kalitatea Kontrolatzeko Plana beteko da, indarrean dagoen legeriaren eskakizunen arabera.

Eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Dekretuaren 6.2 artikuluaren arabera, Administrazio kontratatzaileak, zuzendaritza fakultatiboa jakitun dela, zuzenean eta eraikitzailea edozein dela ere, Kalitatea Kontrolatzeko Laborategi baten edo batzuen zerbitzuak kontratatuko ditu, Kalitatea Kontrolatzeko Planean aipatutako entseguak, probak edo analisiak egiteko.

Eraikitzaileak, Kalitatea Kontrolatzeko Planarekin eta hari eragiten dion indarreko araudiarekin bat etorriz, kontrolera bideratutako bitartekoak, kontrolaren dokumentazioa biltzeko eta entregatzeko sistema eta gainerako agenteei laginketak modu koordinatuan errazteaz arduratuko den pertsona izendatuko du, eta horren berri emango dio zuzendaritza fakultatiboari, jakinaren gainean egon dadin.

Obrak egiten diren bitartean, hornitzaileek eraikitzaileari emango dizkiote, eta hark obra gauzatzeko zuzendaritzari emango dizkio nahitaez bete beharreko araudiak eta, hala badagokio, proiektuak eskatzen dituen identifikazio- eta berme-agiriak, materialak, ekipoak eta sistemak, baita kalitate-

bereizgarrien edo egokitasun-ebaluazio teknikoen dokumentazioa eta erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideak ere.

Obra gauzatzeko zuzendaritzak egiaztatuko du dokumentazio hori materialak, ekipoak eta sistemak jasotzeko nahikoa den, eta egokitzat jotzen dituen probak eta saiakuntzak egin direla adieraziko du, Kalitatea Kontrolatzeko Planean zehaztutakoarekin bat etorriz, eta zuzendaritza Teknikoak aginduta.

Kontratatutako kalitate-kontrolerako laborategiek emaitzen kopia bana emango diete obraren zuzendaritzari eta obrak gauzatzeko zuzendaritzari.

Materialak edo saiakuntza, proba eta analisien emaitzak ez badatoz bat Egikaritze Proiektuan eta ondorengo aldaketetan zehaztutakoarekin, zuzendaritza fakultatiboak neurri zuzentzaile egokiak ezarri eta justifikatuko ditu, eta neurri horiek jasota utziko ditu bai Aginduen eta Asistentzien Liburuan, bai fitxa normalizatuetan. Horiek Kalitatea Kontrolatzeko Liburuan sartuko dira.

Kalitatea kontrolatzeko laborategiak gaizki funtzionatzearen ondorioz obrak egitean atzerapenen bat gertatzen bada, behar besteko saiakuntzen emaitzarik ez dagoelako, enpresa kontratistak berehala jakinaraziko dio zuzendaritza fakultatiboari, dagozkion neurriak har ditzan.

Oinarri honetan xedatutakoak ondoriorik gabe utziko du proiektu teknikoaren baldintza tekniko orokorren pleguaren edukia, aurreko paragrafoetako edukiarekin bateragarria ez denean edo kontraesanean dagoenean.

5.- OBRA ZUZENDARITZAKO BILEREN AKTAK

Obra-bilerak Udalak izendatutako gerentziak beharrezkotzat jotzen duen guztietan egingo dira, eta astean behin gutxienez. Obra zuzendaritzako teknikariak eta obra-burua joan beharko dira, nahitaez, eta, aldizka, Udalak izendatutako teknikariren bat.

Obran zehar zuzendaritza fakultatiboaren, obra-zuzendaritzaren eta obraren egikaritze-zuzendaritzaren, enpresa kontratistaren eta hura eraikitzen parte hartzen duten gainerako agenteen artean egiten diren bileretan, kontratatutako lanen garapenarekin zerikusia duten gaiak jorratzen direnean, akta egingo da. Akta horren 4 kopia egingo dira, bat Administrazioarentzat, bat zuzendaritza teknikoarentzat, beste bat exekuzio-zuzendaritzarentzat eta azkena enpresa kontratistarentzat, eta sinaduren bidez adostuko dira.

Bilera-aktetan, zuzendaritza fakultatiboak obrako gorabehera garrantzitsu guztiak idatziko ditu, eta egokitzat jotzen dituen aginduak, jarraibideak eta komunikazioak erregistratuko ditu, kontratistak bete beharko dituenak. Era berean, zuzendaritza teknikoak aktetan jasoko du aparteko dokumentu batean enpresa kontratistak egindako oharrak, iradokizunak eta erreklamazioak entregatu direla, eta dokumentazio hori eta udalak emandako erantzunak akten eranskin gisa geratuko dira.

6.- OBRA BUKAERAKO DOKUMENTAZIOA

Enpresa kontratistak zuzendaritza fakultatiboarekin lankidetzan jardungo du gauzatutako obraren dokumentazioa prestatzen, bai bere kabuz, bai berak kontratatutako enpresei baldintza hori betearaziz.

7.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA

Udalak, zuzendaritza fakultatiboaren bitartez, kontratatutako obra behar bezala egin dadin ikuskatu, egiaztatu eta zainduko du. Obren zuzendaritza teknikoa udalak izendatutako talde teknikoaren eta segurtasun- eta osasun-koordinatzailearen ardura izango da.

Zuzendaritza teknikoaren eginkizunak KAAP dokumentuaren 35. artikuluan zehaztutakoak dira, besteak beste: obrak ikuskatzea, proiektuaren arabera obrak behar bezala egiteko jarraibideak ematea,

obren kalitatea onartzea eta kontratistari egin beharreko ordainketak baimentzea. Eginkizun horiek ez dute inoiz kontratista kontratuan hartutako betebeharretatik salbuetsiko.

Zuzendaritza teknikoak onartutako ziurtagiriek ez dute kontratista salbuetsiko onartzeko unean ikusi ez diren ezkutuko akatsen aurrean dituen erantzukizunetatik.

Zuzendaritza fakultatiboaren jarraibideak betearazleak izango dira eta enpresa kontratistak beteko ditu, gerora sor daitezkeen erantzukizunei kalterik egin gabe. Udalak bere gain hartzen du obrak ikuskatzeko eta zaintzeko ahalmena, bere teknikarien eta gainerako langileen bitartez, obrak edozein egoeratan daudenean.

8.- KOKAPEN BALDINTZAK

Obra landagune batean kokatutako eraikin baten esku-hartzea izanik, eta bertara trenbidea zeharkatu ondoren iristen denez, enpresa kontratistak neurri bereziak hartu beharko ditu azpiegitura horrek eragindako arrisku-egoerak saihesteko.

Kontuan izan behar da baselizara oinez bakarrik irits daitekeela. Eraikinaren teilatuan kendutako materiala ateratzeko eta bertara materiala sartzeko beharrezko baliabideak jarriko ditu kontratistak.

Enpresa kontratistak behar diren seinaleztapenak jarriko ditu obrarako sarbidea, lanak egiten ari diren eremuan zirkulazioa eta horiek ibiltzeagatik arriskutsuak izan daitezkeen puntuak adierazteko, bai eremu horretan, bai mugetan eta inguruetan.

Kontratak obraren inguruko ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa segurtasun-baldintza nahikoetan mantentzeko betebeharra du, eta, horretarako, arauzko neurriak hartu beharko ditu: seinale bertikalak edota horizontalak, informazio-kartelak eta errotulu adierazleak, une oro oinezkoen, auto-gidarien eta obrako langileen segurtasuna bermatzeko. Era berean, galtzada eta espaloien garbiketa zainduko da, bide-segurtasuneko arrazoiengatik.

Enpresa kontratistak bere gain hartuko du obrak segurtasunez edo behar bezala egiteko beharrezkoak diren instalazio guztien hasierako lanetarako eta mantentze-lanetarako langileak jartzea, betiere instalazio horiek babesteko, argiztatzeko eta etengabe zaintzeko, indarrean dagoen lege-araudiaren edo zuzendaritza fakultatiboaren jarraibideen arabera. Enpresa kontratistak behar diren zerbitzu guztiak instalatuko ditu obretan esku hartzen duten langileentzat, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

9.- HONDAKINEN KUDEAKETA

Hondakinak kudeatzeko plan bat aurkeztuko da, ZETABI, ARKITEKTURA BULEGOA, S.L.P. enpresak egindako egikaritze-proiektuan jasota dagoen Hondakinak Kudeatzeko Azterlanari egokitua, EAEko eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren eskakizunekin bat etorriz.

Kontratistak ezinbestean obrako hondakinen produkzioaren jarraipena eta kontrola egingo du, baita hondakin horiek sailkatu, bildu eta baimendutako kudeatzaileei eman ere. Gastuak bere kargura izango dira. Hondakinak garbiketa-egoera iraunkor eta egokiak ahalbidetzen duen maiztasunarekin jasoko dira.

Obrak amaitu ondoren eta obrak jaso aurretik, enpresa kontratistak erabat garbituko du lekua, obra-hondakinak erretiratuz eta obrak egin bitartean erabilitako behin-behineko instalazio guztiak kenduz, eta kokalekua baldintza egokietan utziko du, administrazioaren eta zuzendaritza fakultatiboaren iritziz. Era berean, obrak egitearen ondorioz kaltetu diren elementuak berriz ondo jarriko ditu, eta behin-behineko txabolak eraitsi edo kenduko ditu.

10.- MATERIALAK

Obran erabili beharreko materialak, enpresa kontratistak kanpoko hornitzaileei erosi behar dizkienak, baldin eta material horien eskuragarritasuna eskaera-daten eta ekoizpen-prozesu espezializatuen menpe badago, proiektuaren zehaztapenekin eta obraren zuzendaritza fakultatiboaren baimenarekin bat etorriz erosi beharko dira behar besteko aurrerapenarekin, enpresa kontratistaren esku egon daitezen erabili beharreko lanak hasi aurretik.

Enpresa kontratistaren ardura izango da material horiek eta obrak egiteko behar diren gainerako material guztiak metatzea, garraiatzea, deskargatzea, gordetzea eta manipulatzea, edozein dela ere material horiek biltegiratzeko espazioa.

Jarriko diren materialak zuzendaritza fakultatiboak baimendu beharko ditu. Materialak eta horiek erabiltzeko modua bat etorriko dira kontratuaren dokumentuekin, jardunbide egokiaren ohiko arauekin eta zuzendaritza fakultatiboaren jarraibideekin. Enpresa kontratistak behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko dio zuzendaritza fakultatiboari erabili beharreko material guztien jatorria, eta laginak eta beharrezko datuak emango dizkio, kalitateari eta kantitateari dagokienez, saiakuntzak egin ahal izateko edo ordezko konponbideak aztertu ahal izateko.

Enpresa kontratistak erregistratutako patente edo prozedura guztiak betetzen direla bermatuko du, eta erregistratutako patente edo prozedura horiek hausteagatik sor daitezkeen erreklamazio guztien erantzule izango da.

Material akastun guztiak berehala kenduko dira obren lekutik eta baldintza egokiak betetzen dituzten beste material batzuengatik ordezkatuko dira, proiektuaren baldintza teknikoen pleguan zehazten denaren arabera.

11.- OBRAKO BEHIN BEHINEKO INSTALAZIOAK

Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du obrak egiteko beharrezkoak diren behin-behineko instalazioak, biltegiak, bitarteko osagarriak, itxiturak eta abar jartzeko eta bere kargura egiteko; instalazio horiek zuzendaritza fakultatiboak onartu beharko ditu.

Obra egiteko behar den ura enpresa kontratistaren kontura izango da, eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin dagozkion izapideak egiteaz, kanalizazioak eraikitzeaz eta kanonak, hartuneak eta kontsumoa ordaintzeaz arduratuko da, indarrean dagoen araudiaren arabera. Era berean, zerbitzu higienikoetako ur zikinen saneamendurako instalazioa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren jarraibideen arabera egingo da.

Obrak egiteko behar den elektrizitatea enpresa kontratistaren kontura izango da, eta dagozkion izapideak eta baimenak, lineak, transformazio-zentroak, barne-sarea eta kanonen, hartuneen eta kontsumoaren ordainketa egingo ditu. Indarrean dauden erregelamendu eta ordenantzen arabera egingo da elektrizitatearen barneko instalazio oro. Enpresa kontratistaren aparatu edo ekipo guztiak lur-hargunearekin eta legez eska daitezkeen prebentzio guztiekin instalatuko dira.

Enpresa kontratistak, halaber, bere kontura instalatuko du, obrek dirauten bitartean, behin-behineko argiztapen nahikoa, lanak egin ahal izateko eta obraren inguruan zirkulatu ahal izateko.

Enpresa kontratista arduratuko da obraren behin-behineko eta segurtasuneko instalazioetarako beharrezkoak diren baimen ofizialak lortzeko beharrezkoak diren izapide guztiez, hala nola garabiak, higiene-zerbitzuak, hesiak, etab. Instalazio horiek guztiak 15 egun balioduneko epean kendu beharko dira, Udalak edo zuzendaritza fakultatiboak hala eskatzen diotenetik zenbatzen hasita.

12.- BALIABIDE OSAGARRIAK

Enpresa esleipendunak obrak behar bezala egiteko beharrezkoak diren makineria eta baliabide osagarriak jarri beharko ditu kontratuan hitzartutako epeetan. Era berean, obrako langileen, oinezkoen eta aldameneko propietateen segurtasuna zaintzeko beharrezko neurri guztiak hartu beharko ditu.

Ez da onartuko materialak sartzeko, garraiatzeko eta kargatzeko eta deskargatzeko gaikuntzari dagokion aparteko partidarik, aurrekontu orokorrean sartuta ez badago, obra-unitateen prezio unitarioen barruan daudela jotzen baita.

13.- HIZKUNTZA-BALDINTZAK

Obrak egiteko jartzen diren errotuluak eta seinaleak piktograma baten bidez egingo dira. Beharrezkotzat jotzen denean, piktogramarekin batera euskarazko azalpen-testu bat aurkeztu ahal izango da. Piktograma baten bidez egitea ezinezkoa bada, euskaraz egingo dira mezu ezagunak eta ulergarriak direnean. Aurreko biak ezin badira egin, bi hizkuntzatan egingo dira, eta lehentasuna emango zaio euskarari, administrazioak adostasuna eman ondoren.

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarria eta, besteak beste, Udalaren barne erabilera planean erregulatua.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. artikuluari jarraiki, kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

Baldintza agiriotan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu.

Kontratazio-prozedura arautzen duten agiriek kontratuaren objektua kontuan hartuta ezarriko dituzte hizkuntza-normalizazioaren arloan kontratua gauzatzeko baldintzak, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koa, III. kapituluan zehaztutako aukerari jarraiki, eta 19/2024 dekretuaren, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa 13. artikuluari jarraiki. Ondorioz, enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan, bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan; beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira. Mendaroko udalaren 2024 urteko Euskararen Erabileraren Plan Estrategikoan zehaztutakoaren arabera, udal osoa da euskarazko administrazio unitatea.

14.- OBRAREN KONTROLA

Enpresa kontratistak, segurtasun- eta osasun- azterlana eta plana betez, behar diren neurri guztiak hartuko ditu obrako langileen eta hirugarrenen segurtasuna bermatzeko, beharrezko elementuen bidez: kartelak, hesiak, barandak, sareak, etab.

Enpresa kontratistak bere erakundeko pertsona bat edo pertsona-talde bat izendatuko du, beharrezko segurtasun-neurriak hartzen direla kontrolatzeko. Era berean, enpresa kontratistak obrak zaindu eta babestu behar ditu edozein kalte edo kalte-arriskutik obrak jaso arte, eta horretarako behar diren baliabideak jarri beharko ditu.

15.- OBRAREN HARRERA ETA LIKIDAZIOA

Obren behin-behineko eta behin betiko harrera eta likidazioak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen, Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrarena eta Baldintza Teknikoen Agiriaren 243. artikuluaren arabera egingo dira.

Azken faktura ez da ordainduko baldin eta aldez aurretik ez badira obraren zuzendaritza fakultatiboaren esku jarri Kalitatea Kontrolatzeko Plana betetzeagatik eskatzen diren dokumentu guztiak eta Hondakinak Kudeatzeko Plana bete izanaren egiaztagiriak.

16.- DOKUMENTUEN LEHENTASUN-HURRENKERA

Proiektu teknikoaren edukia – planoak, memoria, aurrekontua eta neurketak, baldintza-agiria, segurtasun- eta osasun-azterlana, hondakinen kudeaketa-azterlana eta kalitate-kontroleko plana barne hartzen dituena – erabat aplikatzekoa da baldintza-agiri honen xede den kontratazioan; hala ere, ez dute ondoriorik izango aurreko dokumentuetako xedapenek eta, bereziki, baldintza-agirikoek, baldin eta bateragarria ez bada edo kontraesanean badago baldintza tekniko zehatzen agiri honekin, administrazio-klausula partikularren pleguekin edo kontratuarekin. Gauzatu beharreko obra-partidei, erabili beharreko materialen ezaugarriei eta kalitateei eta obra-unitateak gauzatzeko sistemei dagokienez, proiektuko dokumentuak gailenduko dira.

17.- LIZITATZAILEEN PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK, BALIO-IRITZIEN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEEI DAGOZKIENAK

Enpresa lizitatzaileak **Memoria Tekniko** labur bat aurkeztu beharko du, behar bezala zenbakituta, dagokion aurkibidearekin. Memoria horretan baloratuko diren alderdiak jaso beharko dira, eta horien edukia nahikoa izango da egin beharreko obren irismena eta edukia kalibratzeko. Memoria tekniko horrek **ez ditu 12 orrialde baino gehiago izango, DIN A4 formatuan, Arial 11 tamainako letran, lerroarte bakuna.** Horietan ez dira sartzen ataria, aurkibidea, A3 tamainako planoak eta diagramak, ezta deskribatzen diren titulazioei, curriculumari, materialen prestaziorik onenak justifikatzen dituzten dokumentuei edo makineriaren ezaugarriei buruzko eranskinak ere, hala badagokio.

Lizitazio prozeduratik kanpo geratuko dira eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BI zenbakiko artxibo elektronikoetan formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko dokumentazioa (HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa) sartzen dutenak.

Memoria horren edukia eta xehetasuna lizitazioaren xede diren obrak esleitzerakoan baloratuko dira.

Dokumentua eskema eta atal hauen arabera garatu beharko da:

1.- <u>Lanen antolaketa eta lanak egiteko prozedura</u>:

Obraren antolaketaren deskribapena, proiektua gauzatzeko proposatutako eraikuntza-metodoaren eta haren bideragarritasun teknikoaren azterketa bat barne hartzen duena, kokalekua kontuan hartuta, trenbideagatik baldintzatua, obra eremuaren seinaleztapena eta balizamendua, sarbideen planoekin, trafikoaren gaineko eraginarekin, obra-itxierekin, pilaketa-guneekin, obrako behin-behineko instalazioekin, eta koherentea izan beharko du Segurtasun eta Osasun Azterlanean eta aurkeztuko den Segurtasun eta Osasun Planean aurreikusitakoarekin.

Gauzatze-metodologiaren edukia eta xehetasun-maila, lan-prozedura, antolamendua eta gauzatze-faseen xehetasunak puntuatuko dira, baita aurkeztutako memoriatik ondorioztatzen den obraren ezagutza-maila ere.

Bereziki zurezko lanak nola egingo diren zehatz-mehatz deskribatuko da, jarraitu beharreko pausu bakoitza zehaztuta.

Eraikuntzaren ezarpenaren garrantzia azpimarratzen da; beraz, eskaintzek zehatz-mehatz aztertu beharko dute materialen garraiorako eta baliabide osagarrien aukeraketa, baita horien karga eta hustuketa ere, lekuaren baldintza eta muga fisikoak kontuan hartuta.

2.- Exekuzio proiektuaren analisia:

Bereziki baloratuko da honako gai hauek aztertzea:

a) Proiektuaren balorazio kritikoa, aurrekontuarena batez ere, eta proiektuan zehaztu ez diren gorabeherak antzematea, baita proiektuan definitutako partidak gauzatzeko inkongruentziak edo zailtasunak eta horien eragin teknikoa eta ekonomikoa hautematea ere.

b) Sor daitezkeen konplikazioen deskribapena eta konponbide zehatzen proposamena.

c) HKAren berrikuspen kritikoa edo baliozkotasunaren justifikazioa.

3.- Lan programa:

Obra-lan partzialen zein erabatekoen araberako gauzatze-epeak zehaztasunez finkatzea baloratuko da.

Aurkeztutako lan-programan honako alderdi hauen azterketa eta justifikazioa baloratuko dira:

.- Barra-diagrama edo Gantt

.- Lanak antolatzea, baliabideak jartzea eta gauzatzea, obren zatietarako aurreikusitako ekipoak barne, eta horien osaera.

.- Garrantzitsutzat jotzen diren obra-unitateetan erabili beharreko eraikuntza-sistemak, batez besteko errendimenduak adierazita, eta kasu bakoitzean langileak, materiala, erabili beharreko makineria eta ekipo osagarriak zehaztuta.

Proposatutako lan-programak edo egikaritze-planak proiektuan jasotako jarduera guztiak jaso beharko ditu, proposatutako egikaritze-epea frogatu beharko du eta bideragarritasuna justifikatu beharko du, eta, jakina, obrak egiteko proposatutako epe partzialekin eta guztizko epearekin bat etorri beharko da. Adierazitako moduan aurkezten ez bada, ez da kontuan hartuko baloratzeko.

4.- Ingurumen baldintzak:

Materialen edo eraikuntza-sistemen prestazioak, plegu teknikoetan eskatutako gutxienekoez gain, baldin eta ingurumenean inpaktu txikiagoa eragiten badute, dela ekoizpenean, erabileran edo bizi-amaieran:

a) Ingurumen-inpaktuak eragin ditzaketen lanak eta proposatutako neurri zuzentzaileak edo konpentsatzaileak identifikatzea: ura ahalik eta gutxien erabiltzea edo ur araztuak berrerabiltzea; gutxiago kutsatzen duten makinak eta tresnak erabiltzea; zarata gutxiago egiten duten lan-makinak eta metodoak erabiltzea; makinerian eta gainerako ibilgailuetan energiaren eta erregaiaren kontsumoa murrizteko neurriak hartzea, eta horien CO_2 gutxiago isurtzea, etab.

b) Ingurumena zaintzeko eta kudeatzeko neurriak hartzea lanetan zehar eta obran erabilitako materialekin eta makineriarekin lotuta, zerbitzuekin edo hornidurekin, hondakinen sorrera txikiagoa eta kudeaketa hobea egiteko helburuarekin.

c) Karbono-aztarna txikiagoa kontratua gauzatzeko prozesuan.

d) Enbalajeak murriztea edo enbalaje iraunkorrak erabiltzea.

e) Material naturalak, ekologikoak, birzikla daitezkeenak, biodegradagarriak edo erabilera edo bizitza baliagarriaren amaieran berrerabil daitezkeenak.

f) Material birziklatuaren edukia, material guztiaren gaineko ehunekotan.

Materialen ezaugarrien balorazioa egiteko ingurumenaren ikuspegitik prestazio onenak egiaztatzen dituen dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da; adibidez, etiketa ekologikoak. Nolanahi ere, proposatutako materialek proiektuan jasotako materialen ezaugarri tekniko baliokideak edo hobeak izan beharko dituzte. Hala ere, baliokideak ez diren kasuetan, udalak horiek baztertzeko ahalmena izango du.

5.- Material baliabideak:

Makineria, ekipoak edo lanak egiteko erabili beharreko beste baliabide material batzuk, bereziki kontratua gauzatzeko baldintza fisikoak ikusita, eraginkortasuna baloratuta, baita kontratua gauzatzean sor daitezkeen kanpoko eraginak edo baldintzatzaileak murrizteko erabili nahi diren bitartekoak ere.

6.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako esleipen irizpideak:

Atal hau ahalordedunak sinatutako zinpeko aitorpenaren bidez justifikatuko da, eta dokumentu hau zehaztuko da: "Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak". Aplikatutako neurri bakoitzari puntu 1 emango zaio, eta gehienez 5 puntu izango dira.

18.- LIZITATZAILEEN PROPOSAMENEN EZAUGARRIAK, FORMULAK APLIKATUZ EDO AUTOMATIKOKI BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEEI DAGOZKIENAK

Kontratua gauzatuko duten kontratuari atxikitako langileen esperientziari lotutako kalitatea:

Lantaldean honako profil hauek sartzea baloratuko da, Administrazio Klausula Partikularren Agirian zehazten den moduan:

- Obra burua, antzeko obretan 5 urte baino gehiagoko esperientzia duena
- Enkargatu orokorra, antzeko obretan 10 urte baino gehiagoko esperientzia duena
- Enkargatu orokorra, egurrezko egitura originaldun babestutako eraikin batean inoiz ezkutuko errefortzu bat egin duena (barra edo pletina, epoxiarekin). Puntuazioa eraikinaren babesaren araberakoa izango da (oinarrizkoa, ertaina edo berezia)

Horretarako, dagokion curriculuma aurkeztuko da (titulazioa eta antzeko obretan izandako esperientzia), baita bere parte-hartzearen eta obrarako dedikazioaren benetako irismenaren zehaztapena eta konpromisoa ere.

Proposamen ekonomikoaren eranskin gisa aurkeztu ahal izango dira talde teknikoaren kide bakoitzaren curriculum osoak.

Mendaron, sinaduraren datan.

UGALDE IRIONDO INGE - 72456858G
Firmado digitalmente por UGALDE IRIONDO INGE - 72456858G
Fecha: 2024.07.24 12:44:26 +02'00'

Udal arkitekto teknikoa
Inge Ugalde Iriondo